

• ASTERO GAIA •

Hezur-haragizko krisia

EEE basatiaren aurka borrokan ari den hozkailu fabrikako elektrikaria, Euskal Herritik kanporatu ez dezaten eginahaletan ari den etorkina, krisiak are gehiago minusbaliatu dituen langile minusbaliatuak eta higiezinaren burbuilaren eztandak kalteturiko familia. Krisiaren hezur-haragizko biktimak izan arren, biktimismorik gabe azaldu digute euren egoera zaila.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Argazkiak: Dani Blanco

Irudian, Koxka fabrikaren atarian paratu duten hilerri sinbolikoa.
Landabengo fabrika honetatik (Iruñea) 191 langile kanporatu ditzakete.



IRUÑEKO LANDABEN poligonoko fabrikatan krisia ate joka dabil. Nafarroan langabetuen kopurua %53 igo da azken urtean eta industria da sektorerik kaltetuenetakoa. Volkswagenek ekoizpena murriztu du eta horrekin batera, lan baldintzak kaskartu. Dana automozio enpresak 71 langileko EEEari aurre egin behar dio. Baina fabrika horien atarrietan ez dugu ezer antzeman.

Paisaia Koxka hozkailu fabrikara hurbiltzean aldatu da. Atzeko atarian “Despidorik ez” dioen pankarta eskergak eman digu ongietorria. Hesian langileen buzoak daude zintzilik eta beste aldekoan, duela hilabete etengabeko greba abiatu zuten langileak. Parean, 275 langile kalera tzea aurreikusten duen EEEaren mehatxupean, lan hilerrria paratu dute, 275 gurutze biltzen dituen hilerrria.

22 urte dira Bikendi Barea Koxkan lanean hasi zela. Orduan familia-enpresa baino ez zen, baina duela lau urte Hussmann multinazionalak erosi zuen Koxka, eta urtebete geroago, Ingersoll Rand multinazionalak irentsi zituen. “Lehen giza kapitalari balioa ematen zioten arduradunek, baina orain kopuru bat besterik ez gara” dio enpresa batzordeko LABeko ordezkari den Bareak.

Krisia aitzakia

Duela bi hilabete eta erdi lanera joan eta Bikendi Bareak, bere lankideek bezalaxe, “191 langile kaleratuko dituzte Koxkan” titularra irakurri zuen prentsan. Inork ez zien ezertxo ere esan eta horrela izan zuten EEEaren berri. 191 langile bidali nahi zituzten Landabengo fabrikatik, 56 Peraltako lan-tegitik eta, guztira, 275 Espainiako Estatuan. Ez zuten horrelakorik espero, enpresaren egoera ekonomikoa kaxkarra zela jakin arren. “Krisia aitzakia hutsa da haientzat, enpresa aspalditik abiatu baitzen maldan



Goiko irudian, Bikendi Barea, Koxkako langilea, eta enpresa batzordeko kidea. Behean, bere lankideak Nafarroako diputazio parean protestan.

behera, multinazionalak hartu zutenetik, hain zuzen. Arazoa ez da zenbat langile dauden soberan, azken urteetako kudeaketa eskasa baizik. Gero eta makina gehiago sartu, orduan eta etekin txikiagoak lortu dituzte”.

EEEaren berri izan eta helegitea jartzeko hilabeteko epea zabaldu zen. Ondoren “itxurakeria hutsa” izan ziren negoziazioak abiatu ziren. Langileak orduz orduko lanuzteak egiten hasi ziren, baina duela hilabete mugagabeko grebari ekin zioten. Itxura guztiak alde batera utzi eta enpresak negoziazioak hautsi zituen orduan. Orain alegazioepean daude.

Jokalari profesionalen aurrean

Bikendi Bareak ez daki zein den enpresaren jokoa: “Agian ez dituzte kaleratzeak egin nahi, beharbada lan baldintzak ahalik

eta gehien murrizteko presioa baino ez da”. Enpresak Madrilgo abokatu taldea kontratatu du egoera kudeatzeko eta haiek ederki menperatzen dute egin beharreko guztia. “Guretzat, aldiz, halako egoera bati aurre egin behar diogun lehen aldia da; ni elektrikaria naiz, langile arrunta, eta haiek jokalari profesionalak”.

Oraindik ez dakite 275eko zerrenda hori nortzuk osatzen duten. Zalantza eta ezinegon horrek langileen arteko giroa gaiztotu zezakeen, baina bakoitzak bereari begiratu beharrean, Koxkako langile guztiak batu egin dira. “Neurri batean geure meritua izango da, baina baita enpresarena ere, haien intolerantziak eta prepotentziak batu egin baikaitu. Denek barneratu dugu guztion “gerra” dela, guztion sakrifizioa behar dela. Eta ahalegin horrek sindikatu guztiak batera aritzera behartu ditu”.

Oraina larria da, are larriagoa hilabeteko grebaren ondoren. Bareak, besteak beste, hipoteka eta alabaren elikadura-pentsioa



ordaindu behar ditu, eta antzekoa da bere lankideen egoera. Baina etorkizunerako inbertsio gisa ere ikusten du: “Hil honetan ez kobratzea baino okerragoa da langabezira joan eta luzaroan lanik gabe gotea”.

Itzulera boluntarioa?

M.L.A.k ezin du izen-abizen osorik eman. Azken hilabeteotan, Espainiako Gobernuak etorkinen “itzulera boluntarioa” sustatu duenetik, zaila da emakume argentinar honen egoera legala zehaztea. Berez, ez diote erresidentzia-baimena luzatu eta, hortaz, ilegala behar luke, baina harekin bildu ginenean urtebeteko kontratupean lanean ari zen, eta beraz, legala behar luke. Eta noski, beste guztiok bezalaxe kotizatzen ari zen. Orain gutxi arte funtzionarioek kontuan hartzen ez zituzten baldintza horietako bat betetzeko hilabete bat kotizatzea falta zaiolako bota nahi dute Euskal Herritik. Jatorri italiarrekoa denez, Italiako nazionalitatea lortu ahal izan du, baina oraindik ez du pasaportetik. Hitz gutxitan, ez berak, ez abokatuek, ez funtzionarioek zehazten ez dakiten legaltasunaren linbo surrealistan dago.

M.L.A. La Pampan (Argentina) jaio zen duela 32 urte. Amaren aldetik jatorri euskalduna duela eta duela zortzi urte inguru etorri zen lehen aldiz Maizpide barnetegian (Lazkao) euskara ikastera. Barnetegia amaitu eta Argentinara itzuli zen, ez baitzen hemen geratzeko asmoz etorria. Baina Argentinara joan eta berehala Corralito delakoa hasi zen, eta Goierrira itzultzea erabaki zuen. Paperik izan gabe ere lana berehala topatu zuen. Bi urte eta erdi geroago, etorkinen lehen erregularizazioarekin bat lortu zituen paperak. Eta ordutik inolako arazorik gabe aritu da lanean, eta baita ikasketak osatzen ere.

Ikasketa horiek fabrika batean kontratupeko lana topatzen lagundu bazioten ere, orain ikasketa horiengatik lan jarduna eten izanagatik egotzi nahi dute. “Funtzionario batek esan zidan ez nintzela hona etorri ikastera, lan egitera baizik; haientzat zamabereak baino ez gara” dio M.L.A.k, euskara errazean.

Umorea eta pazientzia galtzen ez badu ere, azken hilabeteotan denbora, dirua eta loa galdu ditu izapideen, ilaren eta abokatuen artean. Fabrikan gaueko txandan ari zen eta behin baino gehiagotan, lanetik irten, izapideak egitera abiatu eta arratsaldean berriro lanera joan behar izan du, lorik egin gabe. “Jarraibide manual bat eman beharko liguke-



M.L.A. argentinar etorkina da eta euskaraz bizi da. Erabat integratuta egon arren, azken hilabeteetan hemen geratzeko borrokan ari da eta duela egun gutxi kontratupeko lana galdu du.

ategia, Argentinara itzuli eta hiru urtean ezin-go luke hona itzuli. Beraz, amorrua irentsi, inpotentzia gainditu eta italiar pasaportea lortu bitartean nola edo hala bizirautea beste aukerarik ez du. Pasaportea lortzeko bizpahiru hilabete behar omen ditu, baina nazionalitatea lortzeko sei hilabete behar zituela esan zioten aspaldi, eta zazpi urte behar izan ditu.

Eta ez du itzultzeko asmorik, hemen erabak integratua dago, eta etorkinen aurkako jarrerak salbuespena direla dio. Hori bai, salbuespenak areagotu ditu krisiak, eta orain maizago entzuten du etorkinak guri lana kentzera datozeneko leloa. “Gero berehala esaten didate ni ez naizela besteak bezalako. Baina, bai, ni etorkina naiz, bigarren mailako herritarra”.

Dagokiena aldarrikatzen dute

Noingo Aspaceko Enplegu Zentro Berezian ederki dakite bigarren mailako herritarra izatea zer den, baita krisiaren ondorioak zuzenean jasatea zer den ere. Prentsan irakurri dugu Nafarroako Gobernuari 1,8 milioi euro eskatzen dizkiotela krisia gainditzeko eta hori argitzeko jo dugu Pablo Segurarengana. Enplegu Zentroko enpresa batzordeko kidea da Pablo, ikasketaz fisioterapeuta, hipotekaduna eta itsua. Eta egun bere lanpostua zalan-tzan dago, bere hainbat lankiderena bezalaxe. Aldamenean ditu: Martintxo Irigarai, batzordeko presidentea eta ikusmen arazoak ditue-na; Josean Crespo, distrofia muskularraren eraginez gurgildun aulkian dagoena; eta Mari Karmen Urtea, minusbaliotasunik izan gabe ere, zentroan lanean ari dena.

Nafarroa osoan bost egoitzatan banatuta dauden 240 pertsonak egiten dute lan Aspaceren bidez. Duela urte batzuk guztiek Noaingo egoitzan jarduten zuten, baina deslokalizazioak eta egungo krisiak jarduera erabat aldatzera behartu zituen. Esaterako, oraintsu pintura talde bat jarri dute abian, egoitzaren pintatu berri usainak nabarmen uzten duenez.

Krisia nozitzen lehenak haiek dira. Ia subkontratazio guztiak kendu dizkiete, lan horiek enpresan bertan egiten dituztelako, Ekialdeko herrialdeetara eramaten dituztelako, edota kartzelako presoek oraindik eta merkeago egiten dituztelako. “Gure eskulana merkeagoa izan ohi da” dio Pablo Segurak, “besteak beste, gure soldatak administrazioak diruz laguntzen dituelako. Baina horrek ez du esan nahi gure lan baldintzak galtzeko prest gaudenik. Guk lan duina egiten dugu eta lan duina nahi dugu”.

Noaingo lantegiaren egoera eutsiezina da eta aurrera egiteko 240 langiletatik 80 egotzi beharko lituzketela kalkulatu dute. Ez daude prest inor kaleratzeko, baina lanik ez dute, ezta dirurik ere, eta hil honetan ez dute soldatarik jasoko, laguntzarik iritsi ezean. “80 horiek, hain zuzen, minusbaliotasun handiena dutenak dira” dio Mari Karmen Urteak, “lana galduz gero, egoera larrienean egongo liritekeenak, ezingo luketelako enpresa arruntetan lanik aurkitu”. Ekonomikoki garrantzitsua izateaz gain, sozialki ere lanari eustea ezinbestekoa zaie; “lanpostuarengatik ez balitz, batzuk ez liriteke etxetik irten ere egingo”.

1,8 milioiei dagokienez, garbi utzi nahi dute “ez dugula ez dagokigunik eskatzen. Langile bakoitzeko 1.200 euroko defizit-laguntza jasotzen dugu eta hori 3.000 eurotaraino igotzea eskatzen dugu. Baina soilik lanik ez dugun bitartean. Guk eskatzen dugun gauza bakarra lana da, agintariak beraiek 1987an ezarritako legeak bete ditzaten, besterik ez. Hori beteko balute ez genuke ezertxo ere eskatuko”.



Ezkerretik eskuinera, Mari Karmen Urtea, Josean Crespo, Pablo Segura eta Martintxo Irigarai, Nafarroako Aspaceko kideak. Minusbaliatuen egoera larria eta erakundeen erantzunik eza salatu dute.

Aspacek Noainen duen lantegian gero eta lan gutxiago dago. Lanik ezean, diru-laguntza eskatzen diote Nafarroako Gobernuari. Baina legea betez gero horren beharrik ez luketela azpimarratu nahi dute.

Minusbaliatuen Enplegu Legearen arabera, lehiaketa publikoen %20 enplegu babestuari eman behar zaizkio. Baina azken hilabetetan sei lehiaketara aurkeztu eta bat bera ere ez diete eman. Administrazioako lanpostuen %5 minusbaliatuentzat gorde behar dira legez eta, beraz, Nafarroako 20.000 funtzionarioetatik 1.000 minusbaliatuak izan beharko lukete, eta 200era ere ez dira iristen. Azkenik, enpresa arruntetan, langileen %2 minusbaliatuak izan beharko lukete, baina egun, utopia hutsa da hori. Nafarroan, administrazioaren bidez 10 tona arropa garbitzen dira egunero. Noaingo egoitzan garbitegia dute eta 600 kilo jasotzea nahikoa litzateke. “600 kilo horiek ez diete lanik kentzen enpresa arruntei, hutsaren hurrengoa da hori haientzat, baina guretzat salbazioa litzateke”.

Nafarroako Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilari Jose Maria Roig-ekin behin baino gehiagotan bildu dira Aspaceko ordezkariak. Hitz ederrak entzun dituzte eta kontseilariak ez du inolako arazorik izan minusbaliatuekin batera argazkian agertzeko, “baina hitzetatik ekintzetara dagoen tartean ez du urratsik txikiena ere eman”. Eta azkenean, otsailaren 7an, kalera irten ziren egoera salatzeko: “Jendeak pentsatzen du tontoak garela eta denbora-pasa gatozela lanera. Mugak ditugu, baina postu egokian edozein pertsonak adinako gaitasuna dugu. Are gehiago, sarri



langile arruntek baino motibazio handiagoa dugu. Eta azken hilabeteotan, krisiaren eraginez gure jarduera erabat aldatuta, egokitzeko sekulako ahalmena dugula erakutsi dugu”, gaineratu du Josean Crespok.

Hipoteka bider bi

Nerea Sainz de Murieta sopolarra da, ezkondua dago eta bi alaba ditu. Lan arazorik ez du. Alderantziz, funtzionarioa da, azken urteetan postua hobetu du eta senarrak ere lan-egoera egonkorragoa lortu du. Baina horrek ez du esan nahi krisiak eragin ez die-nik. Krisi hitza edonon entzuten hasi baino lehen ere hasi ziren haien etxebizitza arazoak. Berriki Espainiako INEk emandako datuen arabera, azken urtean etxebizitzaren salmenta %29 jaitsi da Espainiako Estatuan, eta %10etik gora EAEn. Baina familia honen etxebizitza-arazoak krisi hitza edonon entzun baino lehen ere hasi ziren.

Etxebizitza bereko hiru familiek arazo larriak zituzten bizilagun batekin, eta hirurek beren pisua salgai ipintzea erabaki zuten duela bi urte. Urtarrilean ipini zuten salgai eta otsaila erdialdean, bizilagunaren erruz egoera eutsiezin bihurtu zenean senarraren gurasoen etxera joan ziren.

“Akats bat izan genuen: agentziak pisua saltzearen eskusiba eurekin sinatzeko konbentzitu gintuen. Horren bidez, epe batean beste agentzietara ez jotzeko konpromisoa hartzen dituzte, baina ez dituzte betetzen. Lau hilabete galdu genituen horrela”. Baina pisu zaharra saldu ez arren berria erostea erabaki zuten, “ez baikenuen luzaroan senarraren gurasoen apopilo egon nahi”. Berria 320.000 eurotan erosi zuten, 2007ko maiatzean, eta mailegu osoa eskatu behar izan zuten, bestea saldu ezean. Bi hipoteka batera ordaintzen hasi ziren, 2.300 euro hileroko. “Ez



Goiko irudian, Nerea Sainz de Murieta, pisua saltzeko jo zuten lehen agentziaren aurrean. Behean, eraikinetan gero eta ohikoagoa den afixa; etxebizitzaren salmentak behera egin duenez, alokatzeko aukerari heltzen dio hainbatek.

genuen uste egoera hura luzatuko zenik. Garai hartan ez zen krisi hitza entzuten. Hori guztia bizi ahala, mundu horretan sartu ahala, hasi ginen horretaz jabetzen”.

Sei hilabeteko gabezia-epea sinatu zuten mailegu berrian, hau da, epea amaitu baino lehen saldutako pisuaren prezioaren arabera kopuru bat eman behar zioten bankuari. Lehengo etxebizitza azaroa baino lehen saldu behar zuten, beraz. “Bankuan esan ziguten inoiz ez zela gertatu epe hori gainditzea eta, hala ere, gertatu zen; lehenak izan ginen, baina ez azkenak”.

Pisua salgai ipini eta urtebetera etxebizitzak saltzeko zailtasuna denen ahotan zen, eta pisua hasieran 300.000 eurotan saltzen bazuten ere –kopuru horretan tasatuta zegoen– prezioa jaitsi beste erremediorik ez zuten izan. 220.000 eurotaraino jaitsi zuten, baina erosleak, azken unean, atzera egin zuen. Azkenean, 235.000 eurotan saltzea lortu zuten, 15 hilabetez bi hipoteka ordaintzen egon eta gero.

Sainz de Murietaren etxeko ekonomiak ederki nozitu zuen hori. “Amaginarrebak pare bat etxe garbitzen lortzen zuen dirua ematen zigun eta nire soldata osoa ipinita ere ez genuen hipotekak ordaintzeko lain. Senarraren soldatarekin hipotekak ordaintzeko falta zena eta beste gastu guztiak ordaindu behar genituen. Zuloa egiten hasi ginen, eta alaben kontuetan sartuta genituen aurrezkietatik dirua kentzen. Kontuak egin eta joan den abuztuan nondik kendu ere ez genuela konturatu ginen. Azkenean irailen saldu genuen eta eskerrak! Urriko hipotekarako sosik ere ez baikenuen”.

Nerea Sainz de Murietaren familiaren arazoa konpondu da, bidean asko galduta ere. Ez dakigu orri hauetan bildu ditugun gainerako kasuak zertan amaituko diren. Baina bihar arduradun ekonomikoek datu berriak jakinaraziko dituzte. Eta datu horien atzean hezurharagizko kasu berriak sortuko dira. ■

